


2021

TAILERRA



Jolasaren Pedagogia



GAZTEEN EUSKAL
BEHATOKIA OBSERVATORIO VASCO
DE LA JUVENTUD

Euskadi, auzolana, bien común

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

BERDINTASUN, JUSTIZIA
ETA GIZARTE POLITIKETAKO SALA

DEPARTAMENTO DE IGUALDAD,
JUSTIZIA Y POLÍTICAS SOCIALES

TAILERRA: Jolasaren Pedagogia

Non: Bilbo, GEB. Uriortu, 11 - behea

Data: 2021eko apirilaren 14an eta 21ean

Ordutegia: 9:00etatik 13:30etara.


Hizkuntza: gaztelera

Plazak: 12 lagun

Izena emateko epea:
2021eko martxoaren 15etik 22ra

Izena ematea:
www.gaztebehatokia.euskadi.eus

Jolasaren
Pedagogia



Helburu orokorra:


Prestakuntza saioan parte hartzen duten pertsonen jarrera, balioen barneratzea eta hezkuntza-xede anitzak lortzeko tresna ludiko edota jolas-baliabideak, baita esperientziak diseinatzeko metodologiak eta mekanismoak ere ikasiko dituzte.

Horretaz gain, hainbat hezkuntza- eta enpresa-esparrutan erabiltzen ari diren jolasean oinarritutako azken hezkuntza-joera berritzaileak ezagutuko dituzte.

Helburuak:

- Jolasak egungo gizartean duen garrantzia ulertzea.
- Jokoaren hezkuntza-gaitasuna eta gizartea aldatzeko duen ahalmena ulertzea.
- Esperientzia ludikoak diseinatzeko metodologiak, teknikak eta hezkuntza-joerak ezagutzea.
- Jolasean oinarritutako jarduerak eraginkortasunez zuzentzeko teknikak bereganatzea.

Jolasaren
Pedagogia



Metodologia:

70, 20, 10 metodoa erabiliko da: aurrez-aurrekoa, parte-hartzailea, teorikoa eta praktikoa.

Prestakuntza aurrez-aurrekoa izango da eta erakutsitako kontzeptuak modu naturalean barneratzeko parte hartzea sustatzen duen metodologia erabiliko da.

Eduki teorikoez gain, landutako gaiari buruzko ikuspegi zabalagoa eskainiko duten kasu praktikoak azalduko dira.


Era berean, adierazitako tekniken bitartez, modu sortzailean konpon daitezkeen arazoen planteamendu eta eztabaidarako tartea ere izango da.

Materiala emango da, ikastaroa behin bukatuta, hura egin dutenek ikasitako kontzeptuak erabili eta praktikan jartzeko tresnak izan ditzaten.

Hartzaileak:

Gazteak lagundu edo haiekin lan egiten duten pertsonen lehentasuna izango dute (erakunde edo elkarteetan, administrazio publikoetan, enpresetan, ikastetxeetan, boluntarioran...) Honekin batera ere, izena ematearen ordena errespetatuko da.


- **Gazteriaren arloko langileak (Gazte Informazioa, Udalak, Aldundiak, Gazte eta Aisialdirako Elkarteak, eta bestelako erakundeak).**
- **Gizarte hezitzaileak.**
- **Bigarren Hezkuntzako ikastetxeetako orientatzaileak.**



Tailerraren egitaraua edo edukia:

- Jokoaren teoria
- Gaitasun eraldatzailearen deskribapena
- Joko eta elkartze motak
- Motibazioaren kudeaketa
- Sormena prozesu ludikoan
- Talde-lan sortzailearen garapenerako dinamikak
- Psikologia ebolutiboarekin duen harremana
- Jolas-metodologia berriak
- Jardueren diseinurako helburuak
- Plangintzak sortu eta diseinatzeko metodologia
- Jolas-jarduerak zuzentzeko jarraibideak
- Jokoak sortzeko eta diseinatzeko tresnak
- Ebaluatzeko eta aztertzeko metodologia
- Praktikan edo martxan jartzea

Jolasaren
Pedagogia



Irakaslea:

Raúl García Piñeiro. “Saco de Juegos”-en sortzailea. Esperientzia ludikoen diseinatzailea eta berrikuntza teknologikoan aholkularia.

www.sacodejuegos.com

raulgarcia@sacodejuegos.com

Erakunde antolatzailea:

GAZTEEN EUSKAL BEHATOKIA

Gazteria Zuzendaritza

Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Saila. Eusko Jaurlaritza

944031645 • gaztebehatokia@euskadi.eus

Jolasaren
Pedagogia

